

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko martxoaren 4a / 618. zenbakia



FUTBOLA: ENTRENATZAILE ALDAKETA TALDE NAGUSIAN/9 • KULTURA: KORRIKA GIROTZEKO EKITALDIK/12

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: EDU MENDIBIL

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 4**
ZABALA. Barrenkalea 25 943 76 16 87
- ZAPATUA, 5**
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05
- DOMEKA, 6**
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 7**
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63
- MARTITZENA, 8**
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 9**
CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74
- EGUENA, 10**
ZABALA. Barrenkalea 25 943 76 16 87

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (banda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRIAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kirolegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| San Pedro
Domekak:
09:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:00. |
| Santa Marina
Zapatuak:
19:00.
Domekak:
13:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 08:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Antzuola
Domekak:
10:00, 11:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:00. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Elosu
Domekak: 11:00. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | |
| San Juan
Domekak: 11:00. | |
| Elorregi
Domekak: 12:00. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean.

OHARRAK

1979AN JAIOTAKOEN BAZKARIA MARTXOAREN 19AN

1979an jaiotako enbarkaria martxoaren 19an, Txarran-txa jatetxean. Izenematea (30 euro) Kutxan irekitako kontuan, otsailaren 24ra arte. Bazkari egunean 11:00etan elkartuko dira, San Martin plazan.

SAGARPE ELKARTEKO BATZARRA

Sagarpe elkarteko bazkide-ek urteko batzarra egingo dute hurrengo egubakoitze-an, martxoaren 11n; lehen deialdia 19:00etan izango da eta bigarrena, 19:30ean.

ODOL ATERATZEAK HILAREN 16AN ETA 30EAN

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, martxoan beste bi odol ateratze egingo dituzte, hilaren 16an eta 30ean, hain zuzen. Ohikoa den modutan, Seminarioko lokalean egingo dituzte odol ateratzeak, 18:30ean hasita.

JARDUNENAGENDA

TXAPLIGU TALDEA

Bihar, zapatua, Gasteizera patinatzerara joango dira Txapligu taldekoak. Domekan, berriz, *Beldurraren Eguna* izango dute Arrizuriagan, 16:00etan.

TXORIMALO LEHIAKETA

Txorimalo Lehiaketa izango da Erramu Zapatuan, martxoaren 19an. Partaideen adinaren arabera, hiru talde bereiz-tuko dituzte eta onenenda-ko sariak egongo dira. Izena emateko epea martxo-aren 11ra arte izango da zabalik. Argibideak: 943 76 08 19.

URBANOENORDUTEGIA

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERGARAN


Eskutaldea, Udal Pilotalekuko gestorea

Bergarako Udalaren oniritziarekin, Herederos de Gabilondok eta Eskutaldea hitzarmena sinatu zuten 1995eko martxoaren 4an, kultur etxean. Aipatutako akordioaren arabera, Herederos de Gabilondok Eskutaldeari utzi zizkion frontoiko errenta eskubi-deak, 2016 urtera arte.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Liraingdu"



lirain bihurtu.
—Len potolua zan baiña ziero liraingduta dago.

JON IRAEGI

ASTEKOPELIKULAK

'RAY'

ZUZENDARIA: TAYLOR HACKFORD. **AKTOREAK:** JAMIE FOX, KERRY WASHINGTON.

HARIA. Ray Charles musikariaren biografia honek hainbat izendapen izan zituen Oscarretarako; Jamie Foxx-ek aktore onenarena eraman zuen filmean egindako lan bikainagatik.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna). 152 minutu.

PUNTAZIOA: ●●●●●

'SOLO UN BESO'

ZUZENDARIA: KEN LOACH. **AKTOREAK:** ATTA YAKUB, EVA BIRTHSTLE, AHMED RIAZ, SHAMSHAD AKHATAR.

HARIA. Casim jatorri musulmana duen gazte eskoziarra dugu. Disc-jockey egiten du lan, eta lagun-minarekin klub bat zabal-tzearekin egiten du amets... Jasmine lehengusinarekin ezkon-tzeaz dago Casim... Cesar saria jaso duen filma.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan. 108 minutu.

PUNTAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA -8 °C
Martitzena, 1

MAXIMOA 10 °C
Zapatua, 26

ASTEKO EURIA (l/m²) 7,5 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 23	8 °C	-1 °C	- l/m ²
Eguena, 24	7 °C	-1 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 25	9 °C	-2 °C	- l/m ²
Zapatua, 26	10 °C	-2 °C	4,2 l/m ²
Domeka, 27	4 °C	-3 °C	3,3 l/m ²
Astelehena, 28	1 °C	-2 °C	- l/m ²
Martitzena, 1	7 °C	-8 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

Musika eta liburuak

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

ATREBENTZIAEZPADA/ Angiozarren feria izando da zapatuan. Joaten zara auzoetako jaietara?



ISABEL BARQUERO

Ez dut joateko ohiturarik. Lehen, lan egiten nuen aste-buruetan, eta orain, umee-kin, ez gara kanpora asko-rik irteten. Hala ere, eza-gutzen dut auzoetako jai giroa. Elosuko feriara, esa-terako, urtero joaten gara.



ARANTXA DE LA FUENTE

Lehen joaten nintzen, bai-na orain egiteko asko ditut eta aspaldian ez naiz joan. Gainera, uste dut auzoeta-ko feria batzuek xarma gal-du dutela, ohiko produk-tuez gain etorkinek euren postuak ipintzen dituzte eta.



ROBERTO NUÑEZ

Noiz edo noiz joaten naiz. Elosuko feriara, Angiozar-ko jaietan ere izan naiz inoiz... Elosuko ferian ego-ten den giroa gustuko dut, baina txarrena da horrela-ko tokietan jende gehiegi pilatzen dela.



ANTONIO MARTINEZ

Lehen bai, baina aspaldian ez naiz joaten. Lehen, oinez egiten nuen bidea auzoetan jaiak zirenean, giroa gustu-ko dut eta. Hala ere, herri-tik kanpoko ferietara ez naiz sekula joan izan, bertakoak onak badira nahikoa da.



MAITE BEIN


Noizean behin joaten naiz, baina gero eta gutxiago. Gainera, jai giroa toki guz-tietan beherantz doala diru-di. Lehen, baserri auzoetan ez ezik herri barruko auzo-etan ere izaten ziren jaiak: Zubiaurren, Poligonoan...



LEONARDO ESNAOLA

Apaiza naizenez, auzo batzuetako jaietan meza esatera joan behar izaten dut, lanera beraz. Giro ona egoten da, herri-kirolak, jolasak... Ermita asko dago hemen inguruan eta jaiak ere nonahi.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZULOAK ERREPIDEAN Egunero Amillaga ingurutik pasatzen den auto gidari batek jakinarazi digu errepidea zuloz bete-ta dagoela. "Konponketak egiteko depuradorako lanak amaitu arte itxarongo zutela uste nuen, baina inguru horretan jadanik ez dago makinarik eta bideak lehen bezain hondatuta jarraitzen du", esan digu. Haren ustez, "bada ordua zuloak estal ditzaten". //A.

ETABARRUAN...

ASTEKO /5

Haurtzaindegia aldarrikatuz

Hainbat gurasok haurtzaindegi publikoa aldarri-katu zioten alkateari osoko bilkuran.

KIROLA /9

Bergara-Oiartzun

Entrenatzaile berriarekin, Bergarak Oiartzun hartuko du zapatuan Agorro-sinen.

KULTURA /12

Antzerkia gaur Zabalotegian

Oihulari Klown taldearen *Modes-tias clownicas* egubakoitzean Zabalotegiko aretoan.

ASTEKO DATUA

-8°C

IZAN GENITUEN MARTITZENEAN

Luis Mari Agirreren arabera, -8 °C izan genituen martxoaren 1ean, aspaldiko egunik hotzenez-takoa. 2001eko abenduaren 25ean eta 1985eko urtarrilaren 6an eta 12an -10°C izan genituen.

BESTEKEKESANA

“

Nire aita zen artisaua, guztia eskuz egiten baitzuen. Orain guk gozotegian tostoiak eta errelleno-

ak egiteko makinak erabiltzen ditugu. Nirea Larrañagatarren hirugarren belaunaldia da negozio honetan. Nire aitona gozotegia duela mende bat hartu zuen eta orain nire semeak jarraitzen du. Aitak ere 50 urtetik gora egin zituen gozotegian. Egurrez-ko labetik labe elektrikora pasatu gara, baina errellenoen masa egiteko eskuz egin behar da lan. Gozotegian emaztearekin eta errainarekin jarduten dut. Egunean hamar edo hamabi errelleno kaxa gertatzen ditugu, baina garaiaren arabera aldatu egiten da kopurua. Udan ekoizpenak gora egiten du. Errelleno-ak egiteko ez dago sekreturik: ongi lantzea eta materiala freskoa izatea, produktua bera bezalaxe”
MIGUEL LARRAÑAGA / Gozogile
‘El Diario Vasco’/05-02-28

BERAIEKDIÑOÈ/ Jon Suinaga



Haize freskoa

Bizitza tristura da, zorioneko momentue-kin. Ez naiz ni hori esaten duena, budis-tak baizik. Eta hori gutxi izango balitz, haien filosofiak esaten du gizaki guztien ondarea gaixotasuna, zahartza-roa eta heriotza dela. Hori bai bizitzaren ikuspuntu negatiboa... edo errealista?

Zoritzarrez, gaur egun egoera tamalga-riekin bizitzera ohituta gaude. Jarraibide asko daude: esate batera-ko, artikulu hau irakurtzen pasatzen dugun denboran mundu osoan bost urtez azpiko 40 ume inguru gosez hilko dira. Zehazki zenbat diren ez dugu sekula jakingo, inork ez du kontatzeko ardura hartuko, zeren eta biktima hauek biga-rren mailakoak direla ematen du. Hildako hauek ez dira albistegietan edo egunkarietan azalduko, errugabe hauek ez dute oroitzapenik izango eta euren familiek ez dute dirula-guntzarik edo agintarien elkartasunik jasoko.

Bitartean, errudunak, herri aberatsak, betiko moduan, beste aldera begira.

Zorionez, gure bizitzan zorioneko momentuak ere ugari izaten dira. Ume baten irribarre gozoa, maite duzun pertsonaren muxua, lagun arteko afaritxoa, mendiko ibilaldia, egunsenti polit hori... Denak gauza xumeak. Gar-bi dago ez dela behar auto garestie-na, edo etxe onena, edo *Danone* gor-putza edukitzea zo-rirentzua izateko, nahiz eta mezu horrekin etengabe bonbardatzen gaituzten.

Batzutan budistek arrazoia dutela ematen du. Horregatik mundu egokiagoa eraiki behar da denon artean. Afrika, Asia eta Latin Amerikako umeak irribarre egiteko ere. Horreta-rako aldaketa handi bat egon behar da, eta aldaketa horren hasia Hego Amerikan loratzen hasi da. Venezuelan (Hugo Chavez), Brasilen (Lula) edo Uruguain (Tabare Vazquez) justiziaren haize berriak ekartzen dituzte. Haize freskoa.

“Artikulu hau irakurtzen pasatzen dugun denboran munduan 40 ume inguru gosez hilko dira”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegia
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzak
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

OSOKO BILKURA/ Besteak beste, Artekalean, Arrurriagan eta Goenkalean tentsio txikiko hariak lurperatzeko 15.184 euroko aurrekontua onartu zuten

Tranbiaren inguruko eztabaidan bat etorri ziren alkatea eta BAko ordezkariak

EDU MENDIBIL

Gai zerrendako puntu guztiak aho batez onartu zituen Udalbatzak astelehenero osoko bilkuran. Ondoren, erregu eta galderen txandan, Bergara Aurrerako ordezkariak hainbat gai planteatu zituzten.

Besteak beste, Artekalean, Arrurriagan eta Goenkalean tentsio txikiko hariak lurperatzeko Iberdrolaren aurrekontua onartu zuten osoko bilkuran. Aipatutako aurrekontua 15.184 euro da. Erregu eta galderetan, Bergara Aurrerakoek plangintzarik gabe horrelako aurrekontuetan sartzeari merezi ote duen planteatu zuten. Aipatutako kaleak urbanizatzea eta tona askotako kamioiak bertatik igarotzea ez dela logikoa adierazi zuen Jesus Mari Garitano BAko ordezkariak. Alkateak iritzi horrekin bat zetorrela eta obrak bukatzen direnerako plangintza egingo dutela erantzun zuen.

Angiozarko Beheko kaleko terraza egokitzeko proiektua ere onartu zuten, 14.970 euroko aurrekontuarekin. Aurretik, Mila Elortza auzo alkateari proiektu horren berri eman ez izana salatu zuten BAkoek. Victoriano Gallastegi alkateak esan zuenez, proiektua Hirigintza batzordean landu dute eta logikoa auzo alkateari ere horren berri emate



Astelehenero osoko bilkurako irudi bat. BAK batzordeetan parte hartzeko eskaera egin zion berriz ere alkateari.

tea litzateke.

Tranbiaren egitasmoa dela eta, Ibargaraitik beharrezko tranbia lehengo trenbide zaharretik igarotzea ezinbestekotzat jo zuen Garitanok. Era berean, tranbiaren ibilbidearen ondoan, Ozaeta

eta Ibargarai lotuko lituzkeen errepidea egitea ondo legokeela esan zuen, gaur egun saihesbidetik joan beharra dago-eta. Era berean, udaletxean tranbiaren gainean jarritako erakusketa ulergaitza zela salatu zuen BAK.

Alkateak onartu zuenez, teknikoki ez dira gauza asko ulertzen erakusketan eta bat etorri zen Garitano. Arrasateko Ospitalearen ondorekin tranbia ez igarotzea ere kritikatu zuen Garitanok eta alkateak arrazoia eman zion.

18/98 SUMARIOA: EZOHIKO BILKURA
Azkenik, 18/98 sumarioko auziaren gainean ezohiko osoko bilkura deituko dutela aurreratu zuen alkateak. Alderdiekin testu bat adostutakoan bilkura egingo zutela esan zuen Gallastegik.


Hainbat gurasok haurtzaindegia aldarrikatu zioten alkateari

E.M.

Astelehenero osoko bilkuraren aurretik, hainbat gurasok haurtzaindegi publikoa aldarrikatzeko elkarretaratzea egin zuten San Martin plazan. 60 lagun inguru elkartu ziren eta erakusten zuten pankartan zera irakur zitezkeen: *Alkate jauna: non eta noizko 0-3 haur eskola publikoa?*

Ondoren, gurasoen partetik, Bigen Muruamendiarazek eta Aintzane Aranak hitza eskatu zuten osoko bilkuran. Inguruko herrietan haurtzaindegi publikoak martxan dituztela eta ea Bergaran zer gertatzen den galdetu zioten alkateari: "San Martin ikastetxeko Eskola Kontseilua eta Guraso Elkarteak aspalditik ari gara Udalari zerbitzu publikoa garatzeko konpromisoa eskatzen, baina ez dugu erantzunik jaso".

Alkateak gaiaren gainean lanean dihardutela erantzun zien,



Astelehenean egindako elkarretaratzean 60 lagun inguru izan ziren.

"Udalaren betebeharra delako zerbitzu hori eskaintzea". Alkateak esan zuenez, Hezkuntza delegatuarekin egoterik ez du izan eta nobedaderik ez dagoenez, ez ditu

gurasoak bilera baterako deitu. Gurasoek euren kezka azaldu zuten, hurrengo ikasturtea gainean datorrelako eta ez dutelako nobedaderik sumatzen.

LABUR

Hautesle-errola ikusgai izango da udaletxeko idazkaritzan, astelehenera arte

Udalak jakitera eman duenez, datorren apirilaren 17ko hauteskundeak direla eta, hautesle-errola ikusgai egongo da martxoaren 7ra arte udaletxeko idazkaritzan, interesatuek aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzaten. Edozein argibidetarako 943 77 91 00 telefonora jo dezakezue.

Bergarako Batasunak deitutako Herri Batzarra izango da eguenean, Miguel Altunan

Bergarako Batasunak Herri Batzarra egingo du datorren eguenean, martxoaren 11n, Miguel Altunako aretoan, 19:00etan. Herri batzarrean, besteak beste, egungo egoera politikoa. Eta apirilaren 17ko hauteskunde autonomikoak jorratuko dituzte. Herriarrei batzarrean parte hartzeko deia egiten di Batasunak.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik

Urtero legez, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren errola onartu du Udalak. 2005. urteko errola 2005eko otsailaren 24an onartu zuten eta orain 30 eguneko epe bat zabalitzen da errola horren aurkako errekursoak aurkezteko.

Zerga ordaintzeko borondatezko epea orain zabaldu da eta 2005eko maiatzaren 31n itxiko da. Egun horretatik aurrera erre-karguarekin eskatuko dela jakinarazi du Udalak.

KIROLAK/ Aspek eta Udalak akordioa sinatuko dute egunotan

Aspek pilota jaialdiak antolatuko ditu Bergarako Udal Pilotalekuan


EDU MENDIBIL

Bergarako Udala eta Aspe pilota enpresa akordio batera iritsi dira, Udal Pilotalekuan profesional mailako jaialdiak antolatzeko. Aspek iturriek adierazi dutenez, profesional mailako lehen jaialdia martxoaren 13an jokatu da.

Akordioa egunotan sinatuko dute Victoriano Gallastegi alkateak eta Patxi Mutiloa Aspe enpresa-ko gerenteak. Esan bezala, martxoaren 13tik aurrera profesional mailako jaialdiak izango dira Udal Pilotalekuan. Eibarko Astelena Euskal Herriko pilotaleku pribatu bakarra da eta errenta garestiegia omen dela eta, Eibarraren antolatzen zituen jaialdiak Bergarara ekartzeko erabakia hartu du Aspe enpresak.

UDALA, INTERESATUTA

Udalak eta Aspek berehala lortu dute akordioa, Udalak ere interes handia zeukalako Udal Pilotalekura profesional mailako jaialdiak ekartzeko. Joan zen urtean bi jaialdi baino ez ziren egon Udal



Udal Pilotalekuan profesional mailako jaialdiak programatuko dituzte berriz.

Pilotalekuan eta azken urteotan profesionalen zirkuitutik kanpo geratu da Bergarako pilotalekua.

Hasiera baten, Astelelenan gertatzen zen moduan, domeka arratsaldetan izango dira pilota

jaialdiak Bergaran. Pazkoetan ere jaialdiak izango dira. Hitzarmena 2005 urterako da eta urtea amaitu bitartean txapelketa ezberdinetako partiduak ere ikusteko aukera izango dut zaleek.

Emakumearen Eguna ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte

E.M.

Martitzenean, martxoaren 8an, Emakumearen Eguna ospatzen dela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu Bergara Emakumeen Kultur Elkarteak, Jam aretoaren laguntzaz. Martitzenean bertan txokolate jana izango da Artatse elkarteak, 17:30ean, Iñaki Quintanillak alaituta. Eguaztenean, berriz, Mundukideko Adriane Siquiera brasildarra eta Carmen Campos mexikarraren eskutik mahai-ingurua izango da Go-Jam aretoan, 18:30ean. Argazkiak ere izango dira ikusgai. Eguenean,

hilaren 10ean, beste mahai-inguru bat egingo dute Go-Jam aretoan, 18:30ean hasita. Kubako Odalys Reyk eta Honduraseko Claudia Carolina Martinezek euren herrialdeetako emakumeen egoeraren berri emango dute.

Azken hitzaldia martxoaren 17an izango da. Emakundeko kide bat etorriko da Go-Jamera, tratutxarren gainean berba egitera, 18:30ean. Jarraian *Mi vida sin mi* filmaren emanaldia egingo dute.

Azkenik, BEKEk eta Jam aretoak Amparanoia taldearen emanaldi bat iragarri dute martxoaren 18rako.



Emakumearen egoeraren gaineko hitzaldiak izango dira Go-Jamen.



Herriko ikasleak bote luzean saiatzen

Kutzak Ikaspilotarekin batera antolatutako egitasmoaren barne, Bergarako ikastetxeetako ikasleak bote luze-ko topaketa izan zuten astelehenean. Bote luzea euskal pilotako modalitate zaharrena da; garai batean artzainek asmatutako eta garatutako jolasa da. Euskal jolasak indartzeaz gain, ikasleek arteko harremanak lantzea da topaketa hauen helburua. 12 urteko 180 bat ikasleek jardun zuten Udal Pilotalekuan egindako saioan, estilo bikainez gainera.

LABUR

Langabeei zuzendutako ikastaroak

Udalaren Enplegu Zerbitzuak langabetuei zuzendutako bi ikastaro antolatu ditu: makina-erreminta operadore ikastaroa (309 ordu) eta industri elektrikari ikastaroa (340 ordu). Ikastarook Miguel Altuna ikastetxean izango dira, apirilaren 4tik uztailearen 12ra bitartean. Bietan ere helburua bera da: lanpostu bat lortzen laguntzeko prestakuntza ematea. Izena emateko epea martxoaren 18ra arte zabalik dago Udaleko Enplegu Zerbitzuan, 943 77 91 24 telefonoan.



Akats baten zuzenketa

• Intereseko telefonoa 5. orrian

Ospital eta anbulatoriak

Bergarako anbulatorioa 943 03 54 00

PRESOAK/ Bergara Aurrerak asteleheneko osoko bilkuran preso hauen egoeraren gainean berba egin zuen

Mikel Zubimendi gose eta egarri greban dago eta Paulo Elgoro Almeriarako bidean

A.I.

Mikel Zubimendi preso bergararrak 16 egun daramatza gose greban; martxoaren 7an beteko du Frantzian ezarri zioten zigorra eta baliteke egun horretan Estatu espainiarra estraditatzera. Paulo Elgoro, berriz, Alcalatik Almeriarako bidean dago.

Astelehenean, martxoak 7, beteko du Mikel Zubimendik Frantzian ezarri zioten zigorra, baina, Estatu espainiarra estraditatu izateko arriskua dauka. Orain dela 16 egun gose grebari ekin zion eta atzo, eguena, egarri greba has-tekoa zuen.

Abokatua martitzenean egon zen Mikelekin eta adierazi zuen, 8 kilo galdu dituen arren, gose eta egarri grebarekin aurrera jarraitzeko indarrarekin dagoela.

PAULO ELGORO ALMERIARA BIDEAN

Paulo Elgoro, berriz, aurreko asteko zapatu goizean Alcalako espetxetik atera zuten, Almeriara eramateko. Oraindik, baina, ez da Almeriako espetxera iritsi. Eguazten eguerdian deitu zien



Bergara Aurrerako ordezkariak Zubimendiren eta Elkororen egoera izan zuten hizpide asteleheneko osoko bilkuran.

senitartekoei, Granadako kartzelatik. Aurrerantzean, bere senitartekoei eta lagunek 950 bat kilometro egin beharko dituzte haraino iristeko. Alcalako (Madril) espetxera, berriz, 400 kilometro inguru daude.

OSOKO BILKURAN BERBA-GAI

Astelehenean egin zuten osoko bilkuran ere berba-gai izan zuten presoan egoera. Bergara Aurrerako ordezkari Maite Guridik adierazi zuen euskal presoek borrokan jarraitzen dutela eta

Bergarako Zubimendiren eta Elkororen egoera azaldu zuen. Victoriano Gallastegi alkateak, presoan egoerarekin arduratuta daudela eta ahal dutena egiten jarraituko dutela erantzun zien Bako ordezkariari.

LABUR

Santu Martirixen Eguna ospatuko dute bihar Osintxun

Santu Martirixen Eguna ospatzeko, bihar, zapatua, baserriarren produktuen feria izango da Osintxun. Era berean, talogileak ere egongo dira eta giroa alaitzeko asmoz trikitilariak eta dantzariak arituko dira. Goenatxo harri-jasotzaileak saioa egingo du eta hainbat auzotarrek belar meta egiten jardungo dute. Gauean, bertso-afaria izango da Txuringon, Sebastian Lizaso eta Andoni Egañarekin.

Zuhaitz landaketa egingo dute bihar, zapatua, goizez

Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Mendia Bizirik-ek zuhaitz landaketa iragarri dute bihar zapatuak, hilaren 5erako.

Biharko landaketan, Bergarako hainbat tokitan gaztainondo eta haritz landareak sartzeko asmoa daukate azaldu dute antolatzaileek.

Nahi duten guztiek parte hartzeko aukera izango dute. Irteera 09:00etan egingo dute. Pol-Poleko lokaletik.

EMAKUMEAREN ASTEA

martxoaren 4tik 18ra

MARTXOAK 4
ostirala

"Molestias clównicas", Oihulari Klownen eskutik,
10:30ean Zabalotegi aretoan
• Antolatzailea Bergarako Udala

MARTXOAK 8
asteartea

Txokolatada eta dantzaldia, Kintanillaren eskutik.
17:30ean Artatse elkartearen

MARTXOAK 9
asteazkena

Hitzaldia, Mundukideren eskutik.
18:30ean Go-jam aretoan
Partehartzaileak:
• Adriane Siquiera Fonseca (Brasil) (Movimiento Sin Tierra, M.S.T.)
• Carmen Campos Mukul (Mexico) (Fundación para el desarrollo humano de Yucatan, A.C.)

Argazki erakusketa, Go-Jam aretoan

MARTXOAK 10
osteguna

Hitzaldia, Mundukideren eskutik.
18:30ean Go-jam aretoan
Partehartzaileak:
• Odalys Rey Neira (Cuba) (Complejo Agroindustrial Guatemala y Grupo Empresarial de Construcciones Azucareras) (G.E.C.A.)
• Claudia Carolina Martinez Peña (Honduras) Cooperativa Mixta, Fraternidad de Mujeres, Ltda. (CONFRAMUL)

Argazki erakusketa, Go-Jam aretoan

MARTXOAK 17
osteguna

Hitzaldia, Emakunderen eskutik.
18:30ean Go-Jam aretoan
Gaia: Tratu txarrak

Zinea, "Mi vida sin mí", 20:00etan, Go-Jam
Argazki erakusketa, Go-Jam aretoan

MARTXOAK 18
ostirala

Kontzertua, AMPARANOIA+ talde gonbidatua
22:00etan, Go-Jam aretoan

Antolatzaileak:



Bergarako Emakume Kultur Elkarte



Go-Jam

Laguntzaileak:



Goienkaria

8 martxoak 8

MINGAINARITIRAKA



Esther Muñoz

INSTITUTU OPTIKOA

Urriar zabaldu zutenetik, Bergarako Institutu Optikoan dihardu lanean Estherrek; lehen Arrasatekoan ibili zen. Arrasatearra da Esther, baina Bergaran bizi da gaur egun. Estherrekin batera, Eider aretxabaletarrak ere badihardu optikan.

Betaurrekoetan ere modak agintzen du. Zelakoak datoz hurrengo denboraldirako?

Eguzkitako betaurrekoetan, handiak, oso handiak, 60ko hamarkadako estilokoak. Beste betaurrekoetan, berriz, txikiak eta lauki formakoak daude boladan.

Beharra duenari, zer gomendatuko zenizkioke, betaurrekoak ala lentillak?

Hori adinaren eta begietan duzun arazoaren arabera izaten da. Oro har, edozeinek erabil ditzake lentillak, baina kasu bakoitza aztertu behar izaten da.

Ikusmena zaintzeko, ze aholku?

Arazo handien lentillak dituztenek izan dezakete; txarra da ordu askoan lentillekin ibiltzea. Bestetik, urtean behin errebisioa egitea ere komeni izaten da.

Jendearen begiei asko erreparatzen diezu? Zelako begiak gusatzzen zaizkizu?

Bada, bai; begi handiak eta ilunak gusatzzen zaizkit.

Zure lanean, zer da gehien gusatzzen zaizuna?

Jendearekin tratua izatea eta betaurrekoak probatzea; kajoitik betaurrekoak atera, bezeroari probatzeko eman...

Eta gutxien?

Tailerrean lan egitea; kristalak moztu, betaurrekoak muntatu, eta abar egiten dugu tailerrean.

Zure bertute bat?

Pazientzia handia dudala.

Eta akats bat?

Hori ez dizut esango.

Denbora librean zer egitea gusatzzen zaizu?

Familiarekin egun-pasa joatea.

Egunkarian zer da lehenengo irakurtzen duzuna?

Aztetik aurrera irakurtzen dut egunkaria.

Eta irakurri nahiko zenukeena?

Irakeko arazoak konpondu egin direla.

Amets bat?

Loteria tokatzea; gainontzean, oso ondo nago, ezin naiz kexatu.

AINZANE IRIZAR

BERGARARRAK MUNDUAN

NEREA AGIRRE

36 URTE / ESKULANAK EGITEN DITU / BEDERATZI URTEZ BIZI IZAN DA ESTATU BATUETAN

“Gure alabek eta senarrak jaioterria ezagutzea nahi nuen, eta bete dut nahi hori”

EDU MENDIBIL

Estatu Batuetatik iritsi berri da Nerea Agirre bergarra. Azaroan etorri zen, Jade senarra eta Taresa (3 urte) eta Izarra (15 hilabete) alabekin batera. Bederatzi urte egin ditu Nereak Estatu Batuetan, San Frantziskon lehenbizi eta Santa Fe, Mexiko Berrian, azken lau urteak. Ameriketara joan baino lehen bi urte egin zituen Londresen: “Elementalean ikasi ondoren, Informatika Gestioa egin nuen Donostian. Baina Ingalaterrara joatea erabaki nuen, ingelesa ikastearren eta beste bizimodu bat ezagutzearren. Ondoren, Kaliforniara joateko aukera suertatu zitzaidan, eta uste nuen baino denbora luzeago egin nuen han...”

San Frantziskon, besteak beste, masaje txinatarra, argazkilaritza eta antzerki ikastaroak egin zituen, eta gustura ibili zen han: “Estatubatuarrek lanerako aukera onak eskaintzen dizkizute. Lanerako balio duzula demostratzen baduzu, aurrera egin dezate, eta hori ona da. Bestalde, kultura nahiko indibidualista da hangoa, hemengo balio batzuk ez dauzkate, eta hori ez zait askorik gustatzen”.

“Estatu Batuetatik etorritakoan, hemengo itsasoa ikusteko gogoa neukan”

Kaliforniatik Mexiko Berrira alde egitean, hiri txikiago baten bizi izan zen Nerea: “Santa Fe hiri turistikoa da, kolonial estilokoa, eta badauka bere xarma. Lagun batzuek gonbidatuta joan nintzen, eta han ezagutu nuen Jade”. Eskulanak lantzen dituzte Jadek eta Nereak: zeramika eta egurrezko figurak, beirazkoak, iturritxoak, bitxiak... Hain zuzen ere, Erramu Zapatuan postua jarriko dute kalean, egiten dutena erakusteko.

Zortzi urtean etorri barik egon ostean, guztiz ezberdina aurkitu du Nereak jaioterria: “Zeharo aldatu da Bergara, eta zalantza daukat horrenbesteko garapena onerako ote den: esate baterako, kutsadura handia nabaritzen dut. Ez dakit zer egingo dugun, baina mendi aldera bizitzera joan nahi dugu, Nafarroara edo Gipuzkoako beste herrirekin batera. Santa Fe ere nahiko menditsua da, eta mendian bizi nahi dugu, alabendako ere medio naturalena dela iruditzen zaigulako”. Euskal Herrira bueltatzean, itsasoa ikusteko gogoa zeukan Nereak: “Hona iritsi eta handik lasterrera irteera bat egin genuen, Donostiara, Zarautzera, Getariara... Zoragarria da Kantauri Itsasoa eta hemengo berdeak ere ez dauka zerikusirik hangoarekin”. Ardi gazta ere falta sumatzen zuen Nereak. Eta Jaderi izugarri gustatzen zaiola diosku. Laukotea gustura dabil Bergaran. “Alabei eta senarrari Euskal Herria erakusteko gogoa neukan, nongoa naizen ezagut dezaten, eta bete dut nahi hori”.



MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



margolan
margoak

- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ feng shui estudioak
- ▶ bidriren margolanak
- ▶ Imitazioak

Sagasti auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA-HERNANI
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777

Kirol Zerbitzuak pilates metodoan oinarritutako ikastaroa antolatu du

E.M.

Udaleko Kirol Zerbitzuak pilates metodoan oinarritutako ikastaroa antolatu du. Sasoian egon nahi duten 14 urtetik gorakoei zuzenduta dago ikastaroa. Eskolak astelehen eta eguaztenetan izango dira, 09:30etik 10:30era edo 18:30etik 19:30era, yogako egotzan, Mariaren Lagundian. Goizeko txandan Nuria Rodriguez izango da irakaslea eta arratsaldean, berriz, Amaia Carrillo. Astelehenean, martxoaren 7an, hasiko dira eskolak.

Kirol Zerbitzuak jakitera eman duenez, pilates metodoa oso gorputz-hezakuntza osatua da. Metodo honekin gorputza osotasunean lantzen da, muskulatura sakonenetik txikieneraino. Bertan adimenak eta gorputzak parte hartzen dute. Besteak beste, arnasketa, kontzentrazioa, kontrola, lerrokatzea, zentratzea eta

arintasuna lantzen dira. Ariketa fisikoa egiten hasten direnendako zein mugimendua hobetu nahi dutenendako metodo baliagarria da. Azken sei urteotan munduan zehar asko zabaldu da pilates metodoa.

Ikastaroaren prezioari dagokionez, bazkideendako 22,8 euro da hilean eta bazkide ez direnendako, berriz, 29 euro. Matrikula, berriz, 18 euro da eta bi kontu daude diru-sarrera egiteko, Kutxan edo Euskadiko Kutxan. Izenematea zabalik dago, udaltxean, Kirol Zerbitzuan. Argibideak bertan, 943 77 91 67 telefono zenbakian.

TENIS TXAPELKETA BIHARTIK

Bestalde, 21 lagunek eman dute izena tenis txapelketan parte hartzeko. Txapelketa bihar, zapatua, hasiko da Labegaraietako tenis pistan eta Debagoieneko zirkuiturako puntuagarria izango da.



Ikastaroa astelehenean hasiko da, Mariaren Lagundiko eraikin berrian.

ARTXIBOA

MENDIA

Mendiko argazkiak kultur etxean ikusgai

Felix Inurrategi-Baltistan fundazioaren Elkartasunean mendia bide izenburuko argazki erakusketa ikusgai izango da kultur etxean, martxoaren 20ra arte. Erakusketa aretoa ohiko ordutegian egongo da zabalik.

ESKUBALOIA

Bergara-Portugalete partidua zapatuan kiroldegian

Euskadiko Ligan dabilen senior mailako taldeak Portugaleteren aurka jokatu du bihar kiroldegian, 17:45ean. Aurretik, gazte mailako neskek Legazpia izango dute bisitari, 16:10ean. Domekan, Gipuzkoako Ligako senior mailako taldeak Pulporen aurka jokatu du, 12:15ean.

ELKARRIZKETA

JUAN CARLOS GOMEZ DE SEGURA/BIGARREN GAZTE MAILAKO FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA

"Borrokatzeko, gogor entrenatzeko errepikatzen diet jokalariei behin eta berriz"

EDU MENDIBIL

Juan Carlos Gomez de Segura, besteak beste, Alaves, Durango, Lemoa eta Eibar futbol taldeetan jokatu zuen, Bergarako taldean erretiratu zelarik. Egun BKEko bigarren gazte mailako entrenatzailea da. Igoera fasean dira Gomez de Seguraren mutilak.

Igoera faseko lehen partidua irabazi zenuten zapatuan...

Bai, orain arte lau partidua jokatu ditugu eta denetik egin dugu: bi galdu, bat berdindu eta beste bat irabazi. Gure multzoan zazpi talde gara eta berdintasun handia dago. Antzuola eta Beasain dira beharbada talde indartsuenak. Kontuan izan behar da gure jokalaria maila honetan lehen edo bigarren urtekoak direla, eta badirela esperientzia handiagoko taldeak. Multzoko hiru lehenak igoko dira mailaz, eta horien artean egotea da gure asmoa...

Aulkian asko sufritzen duzu, ala?

Sekulako haserrealdiak hartzen ditut, galdetu jokalariei... Dena den, tentsioan egotea ona da; 5-0 irabaztea ona izango da entrenatzailearendako, baina jokalarierendako ez dut ueste. Hobe ten-

tsio puntu bat egotea, talde biak parekatuta egotea.

Emaitzari ala jokoari emanen diozu lehentasuna?

Jokalariek ikastea eta futbolarekin gozatzea da inportantea. Bizitzako azken partiduan ere zerbait ikas dezakezu; gogor egin behar da lan eta gero etorriko dira emaitzak.


Eta zer errepikatzen diezu behin eta berriz zure jokalariei?

Borrokari eusteko, gogor entrenatzeko. Baina heldutasun falta nabaria daukate adin hauean. Serioagoak izan behar dira. Askotan ilusio barik etortzen direla iruditzen zait, etortzearen besterik barik.

Etorkizunean entrenatzaile izatea nahi duzu?

Ez, iragaitzaz nago hemen. Futbolak denbora asko kentzen dizu eta ez daukat entrenatzaile izateko asmorik. Momentuz

"Ez litzateke harritzekoa izango Eibar lehen mailara igotzea. Ea lortzen duten"



E.M.

gazteekin gustura nabil, baina argi daukat ez naizela futboletik biziko.

Zure jokalaria sasotik, zein entrenatzailearengandik ikasi zenuen gehien?

Guztiengandik zerbait ikasi nuen. Emaitza onenak, beharbada, Alfonso Barasoainen lortu genituen. Juanjo Arrietarekin ere bai. Oso serioa zen, diziplina handikoa. Berarekin lortu genuen 2.B mailarako igoera. Coria eta Badajoz taldeak kanporatu eta gero. Barasoainekin, berriz, 2.A mailara igo ginen. Eibarko sasoirik onena bizitzeko tokatu zitzaidan.

Joaten zara Ipuruara?

Aurten ez naiz egon. Aste bukaeran jokatzen dugu beti eta ez dut aukerarik izan orain arte... badaukat joateko asmoa, aspaldiko lagunak agurtu eta partiduan batekin disfrutatzeko.

Zer egingo du Eibarrek?

Momentuz hor dago, igoera lortzeko borrokan eta ez litzateke harritzekoa izango igoera lortuko balu... Hasieratik lehen postuan egotea ez da ona. Azken sei, zazpi partiduetan erabakitzen da liga eta puntu horretara sasoiarekin eta konfiantzarekin heltzen badira edozer gauza gerta liteke. Ea igotzen diren... Mundiala izango litzateke.

FUTBOLA

Sailkapeneko azken bi taldeen arteko partidua bihar Agorrosinen

Fernando Oregik Igor Gordobil ordezkatu du mahoneroen aulkian

E.M.

Fernando Oregi dugu preferente mailako Bergara KEko entrenatzaile berria. Taldeari 12 final geratzen zaizkio liga amaitu bitartean. Lehenbizikoa bihar, zapatua, jokatu du Oartzunen aurka, 16:30ean, Agorrosinen.

Mutrikun 1-0 galdu ondoren, zuzendaritzak entrenatzaile aldaketa egitea erabaki zuen astelehenean. Beraz, liga amaitu bitartean Fernando Oregik gidatuko du taldea, Igor Gordobilen orde. 25 punturekin azken aurreko tokian dira mahoneroak. Beti Gazte (26 puntu), Urola (27) eta Aloña Mendi (29) dituzte aurretik. Gauzak horrela, bihar irabazteak baino ez dio balio etxeko taldeari. Aurrelari postuak indartzeko, futbola utzita zuen Gorka San Vicente taldera itzuli da eta Alejandro golegilea ekarri dute.

HIRU PARTIDU GEHIAGO

Zapatuan, ohorezko kadete mailako taldeak Aldapetarrak hartuko du, 11:30ean. Domekan beste bi partidua izango dira: futbol 8ko nesken taldeak Añorga har-



ARTXIBOA

Fernando Oregi entrenatzaile berriarekin Bergarak ezinbestekoa du bihar irabaztea.

tuko du 10:00etan, eta bigarren kadete mailan, Bergarak Zestoa izango du bisitari, 11:30ean.

ZOKKETA ERAKARGARRIA

Bestalde, BKEk antolatutako zozketako txartelak euro baten truke salgai daude. Apirilaren 29ko ONCEko zozketako sariarekin

bat datorren txartela izango da irabazlea. Bi pertsonendako Donostiako Londres hotelean aste bukaera bateko egonaldia izango da saria eta horrez gain, Real-Bartzelona partidua ikusi edota Akelarre eta Mugaritz jate-txetan afaltzeko aukera izango dute irabazleek.

Beti-Bustiko piraguistek ondo hasi zuten denboraldia domekan, Orthezen

E.M.

Beti-Busti taldeko piraguistek Euskadiko Kopako lehen jardunaldia izan zuten Orthezen, domekan. Ur biziei ez ezik, hotzari eta izotzari ere egin behar izan zioten aurre Beti-Bustikoek. Senior mailan, Eneko Iturrospe, Roberto Puy eta Gorka Fernandez 9., 10. eta 15. postuetan sailkatu ziren, hurrenez hurren. Orain arte junior mailan lehiatu diren Iraitz Artola eta Markel Agirre senior mailan arituko dira aurten. Domekako saioan Iraitz

11. postuan sailkatu zen eta Markelek ez zuen bigarren txanda bukatzerik izan. Junior mailan, Markel Cestafek lehen postua lortu zuen eta Martxel Alberdi, berriz, 7.a izan zen. Kadete mailan, Leire Fernandezek ere proba bikaina egin zuen, lehen postua eskuratuz. Mutilei dagokionez, Mikel Alustiza eta Iraitz Arizabaleta 8. eta 11. postuan sailkatu ziren, hurrenez hurren, kadete mailako proban. Infantil mailan, Imanol Berroiak ere maila ona azaldu zuen teknifikazioa izeneko saioan.



BETI-BUSTI

Markel Cestafek lehen postua lortu zuen junior mailako proban.

FOTOKIROLA



Elurra zela eta, Larreara beharrean Irimora Pol-Poleko beteranoak

Pol-Poleko beteranoek Arabatik, Larreatik, Arantzazuraino ibilaldia egiteko asmoa zeukaten aurreko domekan. Baina goizean goizetik mendiak eta errepideak zurituta zirela eta, Deskargara joan eta handik Santa Barbara-Irimo-Gorla ibilbidea egitea erabaki zuten. Deskargan gora autobusak ez zuen gora egiterik izan eta Deskarga oinez igo ondoren, ibilaldia jarraitu ahal izan zuten mendizaleek. Elur dezenterekin Irimo tontorreraino iritsi ziren. Hurrengo irteera hilaren 20an egingo dute, Etxalarrera eta Iruritarra, Nafarroara. /ARGAZKIA: JUAN MARI SASIGAIN

TXIRRINDULARITZA

Bergarako Txirrindulari Elkarteak denboraldi hasierako irteera egingo du domekan

Bergarako Txirrindulari Elkartekoek Dorletara irteera egingo dute domekan, hilaren 6an. San Martin plazan elkartuko dira, 09:00etan, eta eguerdi partean luntxa izango dute Zuloa elkartearen. Herriko txirrinduzaleei parte hartzeko gonbidapena luzatzen diete.

SASKIBALOIA

Kadete mailako taldeen partidua zapatuan, kiroldegian eta Mariaren Lagundian

Kadete mailako mutilen taldeak, Beasain taldearen aurka jokatuko du zapatuan kiroldegian, 12:00etan. Arratsaldean, berriz, kadete mailako nesken txanda izango da; Jokin Perezen taldeak Kostkas taldea hartuko du Mariaren Lagundian, 16:00etan.

LABEGARAIETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, KANPOAN

10:30: Brescia-De Resaka... PDS
11:30: PDS-Kalaveras... Niutim
12:30: All Blacks-Niu Tim... Kalaveras
ZAPATUAN, BARRUAN
19:00: Egurre-SDTNT... KMP
20:00: Canelejas-KMP... Egurre

10:30: Canalejas-SDTNT... Txipiron
16:00: Belengua-KMP... Cosa Nostra
17:00: Bayer-Cosa Nostra... Pirulotarrak
18:00: Fac-Pirulotarrak... Bayer
19:00: Fit-Mongatxurak... De Resaka
20:00: A Ze Flaxa-De Resaka... Mongatxu.

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Txipiron-All Blacks. Canalejas

DOMEKAN, KANPOAN

11:30: Agirrebeña-Irubide... Komando
10:30: Ganbara-Komando... Irubide



HARMAILATIK

Debagoieneko Kirola Goiena Telebistan

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Astleheneretan
21:00ean eta 22:00ean GOITBn

Aurkezlea: Julen Iriondo




Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 46. alia

IEPA LAGUNOK!

Hemen nator berriz be zuekin ondo pasatzeko asmotan. Hemendik aurrera hillabetian behin etorriko naiz eta 4 orrialdeko Apatxi haundixa ekarriko dotsuet hilleko lehenengo astian. Ia gustatzen jatzuen. Ondo irakurri eta egin ariketa eta jolasak aitatxo eta amatxorekin eta **ZORTE ON!**



Badakizue hillabete honetan udaberrixa hasiko dala? Zer gertatzen da ba udaberrixan? Lorak agertuko dirala zelaixetan eta zuhaitzei hostuak irtengo jakuela. Eta gu oso alai eta pozik egongo garela, ezta? Ondo pasa Aste Santuan!



TXISTIAK

SUSPENTSUA GEOGRAFIAN

Semia etxera ailegatu da zihero penatuta eta aittak galdetu dotsa:

- Zer gertatu jatzu seme?
- Geografiako azterketia ez dotela gaindittu – erantzun dau semiak.
- Zer gertatu da ba? – galdetu dotsa aittak.
- Ez nebala gogoratzen nun zeguan Ozeano Atlantikua.
- Oso ondo pentsatzen jat. Hola hurrengorako ikasiko dozu non lagatzen ditzuzun gauzak.

AZTERKETIA KOPIXATZEN

Irakaslia zuzendutako azterketak banatzen hasi da eta: "Aitorrek 10, Ikerrek 8, Iratik 5 eta Koxmek 0".

- Zela 0? – galdetzen dau Koxmek.
- Bai, azterketia kopixatu egin dotsazulako Ikerri – erantzuten dotsa irakasliak
- Eta zela dakizu ez dala bera izan neri kopixatu dostana?
- Lehenengo bost galderetan erantzun berak daukazuelako eta azkenenguan Ikerrek "ez dakitt" jarri dabelako eta zuk "nik be ez".

KONKORDUNA ETA BURUSOILLA

Burusoillak konkordunari:

- Zer daukazu bizkarrian daroiazun motxilan?
- Zure orrazixa.

URREZKO ARAUAK

Familixako kidiak izendatzerakuan, tartian andrazkorik bada, andrazkua eta gizonezkua, bixak, aittatu bihar dira, holako bikotien bittartez:

Aitta-amak, aittajaun-amandriak, anai-arrebak, lehengusu-lehengusiñak, osaba-izebak, ...

- Andoni eta Leire anai-arrebak dira.
- Atzo aitta-amekin juan nintzan erosketak egittera.
- Nik 4 lehengusu-lehengusiña daukat: Lierni, Oier, Maite eta Peru.



- ~~Andoni eta Leire anaiak dira.~~
- ~~Atzo aittekin juan nintzan erosketak egittera.~~
- ~~Nik 4 lehengusu daukat: Lierni, Oier, Maite eta Peru.~~



ZOTZ EGITTEKO

Edozein jolas egin baiño lehen, zein hasiko dan aukeratzeko balixo dau jolas honek:

*Kuku-miku kañola
kañaberia larrosa,
Pitxoke ta Pitxote
jaunak nora zoiaste
kalian gora
kalian behera,
biribiltxua alkate.*

*Eskuan daukat hazixe
poltsan urre gorrix
amamatxuak balekixe
etarako lostake begixe.*

Nahi badozue kanta hau Oskorri taldiaren *Katuen testamentua* bilduman daukazue.

OHARRA

Hemendik aurrera jolas bakoitza marrazki batekin juango da, honetxek dira:



Loria: 3-6 urteko umeentzat gomendatua



Baloia: 7-9 urteko umeentzat gomendatua



Kometia: 10-12 urteko umeentzat gomendatua



BIDEOJOKO GOMENDIUA

Jokatu lagunekin eskalan egindako pilotaleku birtual batian!

Jokuaren ezaugarriak:

- Markagaillua.
- Pelotiaren abixadaren adierazlia.
- Hamaika jokaldi egin zeinke (sotamanuak, dejadak, besagaiñak eta pelota gurutzatuak barne).
- Kantxa giroko soiñu paregabia: apustulariak, frontis zaratia, bote-zarattia, xisteraren ufak...
- Jatorrizko musikia.
- Arautegixa.
- Pelota modalitatiak: ESKU PELOTIA eta ZESTA PUNTIA. WINDOWS 95, 98, 2000
- Gutxieneko baldintzak PC 450 mHz



ESKU JOLASA

Kanta hau ume txikiei kantatzeko da. Kanta abestu bittartian umiaren hatzamar bakoitza aukeratuz eta seiñalatzuz nagusixak abestuko dau:

Lehenengotxu hori,
punta-bihetz hori,
beste guztien artian
txikixa dok hori.

Bostgarrengo hori,
punta bihetz hori
beste guztien artian
lodixa dok hori.

Bigarrengo hori,
punta bihetz hori,
beste guztien artian
nagixa dok hori.

Hirugarrengo hori,
punta bihetz hori
beste guztien artian
luzia dok hori.

Laugarrengo hori,
punta bihetz hori,
beste guztien artian
azkarra dok hori.



IKUSI MAKUSI

Zer dala eta zer dala:
astuak ez dauka,
baiña zaldixak bai.
Zozuak ez dauka,
Baiña txorixak bai.
Idixak bi aldiz,
Behixak behin bakarrik.
Zer da?



Pipitaki, papataki
Zer dan nik badakit.
Argixa dauka, baiña ez da
bonbillia.
Berua emoten dau, baiña
ez da sua.
Gabaz ez da ikusten,
Baiña egunez beti dago.
Zer da?

UME HIZKERIA

Zer esan nahi dau umiak Ñañan esaten dabenian?

- 1- Miña
- 2- Jan
- 3- Anaia



KOMIKIXA




ARTXILA MORTXILA

Zure lagun bati 3 dado hartu eta mugitzeko eskatu, eta gero daduak bata bestiarene gainian jartzeko eskatu.

Lagunari hau esan:

Artxila mortxila, baietz asmatu goitik ikusten ez ditudan daduen aldeetako puntuen batuketia zein dan!



Zela kalkulatu zenbakixa: oso erreza da batuketia egittia. Daduaren kontrako aldetako batuketak beti 7 zenbakixa emoten dau. Hortaz, 3 daduen kontrako aldien batuketia guztira 21 da. Irudixan agertzen diran daduen adibidia ikusiko dogu: zuk daduaren goiko aldeko zenbakixa bakarrik ikusten dozu, irudiko adibidian 1 zenbakixa, orduan tapatuta gelditzen diran aldien batuketia 20 izango da. (21-1=20).

Ondo kontzentratu eta zenbakixa esango dozu, gero tapatuta daren dado-aldiak erakutsi eta asmatu dozula ikusten dabenian, zure lagunak zihero harrittuta lagako dittuzu.

ALFERRAREN ASTIA KANTUA

Lotu letrak zenbakixekin

A → , jai ondoren alferra
Ezer ez egitteko ez goiaz lanera
Ez goiaz lanera, ez goiaz lanera
Ez goiaz lanera, ez goiaz lanera

B → , kriston buruko miña
Aspirina hartu ta bagoiaz ohera
Ez goiaz lanera

C → , izeba ezkontzen da ta
Berak jai hartzen badau, ez goiaz lanera
Ez goiaz lanera

D → , amamaren eguna
Hori ospatuzeko, ez goiaz lanera
Ez goiaz lanera

E → , eurixa goitik behera
Busti egingo gara ta ez goiaz lanera
Ez goiaz lanera

F → , egun erdiko lana
Egun erdixagatik ez goiaz lanera
Ez goiaz lanera

G → , lantegixak itxitta
Lanera jua nahi baiña ezin jua lanera
Ez goiaz lanera




ASTEKO EGUNAK:

- 1- Domekia
- 2- Eguena
- 3- Eguakitza
- 4- Astelehena
- 5- Eguastena
- 6- Martitzena
- 7- Zapatua

JOLASA

Sartu berba bakoitza andrazkuen ala gizonezkuen multzuan

Danak ez badakizu, etxekuei, zure lagunei, ... galdetu. Baietz danon artian asmatu!



ANDRAZKUAK

- ama
- aitta
- koiñatua
- koiñatia
- lehengusua
- lehengusiña
- amandria
- aittajauna
- izeba
- osaba
- suhiña
- erraiña
- amagiñarrebria
- aittagiñarrebria
- anaia
- arrebria
- ahiztia
- maisua
- maistria
- andereñua
- alabia

GIZONEZKUAK




ESKU LANAK


IRUDI MAGNETIKUA

Biharrezko materixala hau da:

- Kartoi zati bat
- Guraizak
- Papera (folixua)
- Koloretako marguak edo errotulagailuak
- Iman txikixa
- Klipa
- Zelua



Irudi magnetikua osatzeko honako pauso honek jarraitu bihar dira:




1 Hartu kartoi zati bat eta gure folixuaren neurri bereko marko bat eta ebagi. Markuak bi zentimetroko zabaleria eukiko dau.



6 Hartu iman magnetikua. Edozein neurritakua izan leike.



2 Paperian bide bihurgunetsu bat marraztu eta nahi dittuzun adiña marrazki eta zehaztasun gehitu: errekia, etxiak ...



7 Imana marrazkixaren azpikaldian jarri eta marraztutako irudi (autua, pertsonia ...) txikixarekin batera mobidu.



3 Marrazkixa margotu eta kartoi izko markua marrazkixaren atzekaldian itsatsi. Markuak marrazkixa sendotuko dau.



8 Bultza egixozu imanari eskuarekin bidian zihar.



4 Nahi dozun itxurako irudixa (autua, pertsonia, bizikletia ...) marraztu eta ebagi.



5 Zeluarekin klipa marrazkixaren atzekaldian itsatsi



9 Marrazkixa mendixa izan biharrian atrakziño parkia be izan leike, adibide honetan ikusi zeinken moduan.

TXORIMALO LEHIAKETIA

Zer, hasi zarete Erramu Zapaturako txorimalua prestatzen? Ondiokan denboraz zabizte Jardunen izena emoteko eta txorimalo lehiaketan parte hartzeko. Animatu eta zorte on!

Egilea: Julen Muruamendaraz
Eskola: LH6-San Martin eskola



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Monumentu izendapenaz, kultura ondasun deklaratu zuten Aldai Egiako baserri hau 2004an. Zein da bere izena?

GALDEDEBALDE

1.

Nor da Aspe pilota enpresako gerentea?

- A/ Fernando Vidarte.
- B/ Patxi Mutiloa.
- C/ Peli Errandonea.

2.

Nor izendatu dute Bergara KEko preferente mailako entrenatzaile?

- A/ Fernando Oregi.
- B/ Igor Gordobil.
- C/ Juan Carlos Gomez de Segura.

3.

Noiz iritsiko da Korrikaren 14. ekitaldia Bergarara?

- A/ Martxoaren 10ean.
- B/ Martxoaren 16an.
- C/ Martxoaren 25ean.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

PERU AZKARATErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Peru! Galderen erantzunak hauek ziren: Bonofotoa: Ezkerrekoa, Arteka-lean (kale kantoia); eskumakoa, Arrurriagan. Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Hojiblanca

Oliba-olio birjina estra. Litroa

3,49 €

581 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAROSPETSUAK

Andres Ondartza (1)

KOLDO PEREIRA

Andres Martinez Ondartza Uzarraga XV. mendearen azken herenean jaio zen, Bergaran. Entzute handiko gizona izan zen, eta, horren ondorioz, leku nabarmena du Bergarako seme gailenen artean. Gaztelara joan zen Fernando katoliko-arentzat lan egitera, eta haren idazkaria izan zen 53 urtez. Felipe I.aren ikuskari eta kontularia eta Karlos V.a enperadorearen kontularia izan zen haren errege-etxean. Kontulari lanetan kontu-liburuen eta ogasunaren ardura zuen Ondartzak. 1535ean Santiagoren Ordenako abitua jantzi zuen, eta Ordena haren babesa izan zuen. Bestalde, Calatravaren Ordenak Jose Gabiria Jauregiri buruz egindako espedientean deklaratu zuen lekuko batek adierazi zuenez, Komendadorea Santiago Ordenako zaldunen arteko lehen gipuzkoarra izan omen zen.

Errege-erreginek Oñatiko Bidaurreta komentu bikaina (frantziskotar moja) egiteko eskatu zioten, eta Ebanjelioaren aldean dagoen lehen kapera hari eskaini zioten ordainetan. Era berean, Bergarako Trinitate elizako komentua (frantziskotar moja) fundatu zuen.

1535ean Santiagoren Ordenako abitua jantzi zuen, eta Ordena haren babesa izan zuen



ARTXIBOA

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

FISIOTERAPIA KONTSULTA BERRIA

Irene Unzueta

Ordua hartzeko:
San Martin Osasundegia
Ramon M^a Lili 2.

943 76 59 39



943 76 20 61
BERGARA

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

KORRIKA 14/ Batzordeak ekitaldiak antolatu ditu euskararen aldeko lasterketa dela eta

Korrikaren aldeko eguna antolatu du Bergarako batzordeak martxoaren 12rako

IRATI AGIRREAZALDEGI

Martxoaren 16an pasatuko da Korrika Bergararik. Aurrez, ordea, herria girotzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Korrika batzordeak. Lehenengoa asteburu honetan egingo dute. Gainontzekoak hurrengo zapatuan eta martxoaren 16an bertan izango dira.

Korrika 14 badatorrela eta batzorde bat sortu dute herrian hainbat ekintza antolatzeko eta astean aurkeztu dituzte ekintzok. Batzorde horretan daude besteak beste Jardun elkarteak, AEK euskaltegiko, Gaztetxeak, ikastetxeetako, Aralarreko eta sindikatueta-ko ordezkariak.

Martxoaren 10ean Orreagan (Nafarroa) hasi eta Bilbon amaituko da euskararen aldeko lasterketa martxoaren 20an. Bergararik hilaren 16an pasatuko da arratsaldean.

LAGUNTAILE

Korrikan parte hartzeaz gain, AEKri laguntzeko beste modu bat da Korrika laguntzaile egitea. Horretarako, 12 euroren truke pin bat erosi eta Euskal Herriko hainbat dendatan deskontuak lor-

tzeko aukera egongo da. Korrika laguntzaile egiteko modua dago Jardunen eta Pol-polen. Horretaz gain, bihar, zapatua, mahaia ipiniko dute plazan 11:00etatik 14:00etara bitartean.

Bestalde, Korrikaren inguruko ekitaldiak zapatuan bertan hasiko dira. 11:00etan Pol-polen elkartu eta 12:00etan mahaingurua egongo da. Euskararen egoerari buruz egingo dute berba. euskalgintzan diharduten norbanakoei eta elkarrekin ordezkariak, gonbidatuta daude baita gaiarekiko interesa dutenak.

KORRIKA GIROTZEKO EKINTZAK

Datorren zapatua, martxoaren 12a Korrikaren aldeko eguna izendatu dute batzordekoek.

Munibe plazan arratsaldeko 16:30etik 18:00etara umeendako jolasak eta musika egongo dira. Ordu berean, San Martin plazan gaztetxoendako malabareak egongo dira gaztetxeetako gidatuta.1

Ondoren, kalea girotzen trikitilariak eta dantzariak jardungo dute.18:00etatik aurrera. 19:00etan, berriz, bertso eta trikiti-poteoa egongo da trikiti eta bertso eskolako kideekin.

Gauerako antzerkia dago iragarrita. *Euskararen zazpi beka-*



Korrika batzordeko hainbat kidek ekitaldiak aurkezteko egin zuten prentsaurrekoa.

tu nagusiak obra izango da 22:00etan Novedades aretoan. Honen ostean, gaztetxean, Ekin eta Ttakunpa taldeekin kon-

zertua izango da. Domekan, hilaren 13an, Bandaren kontzertua izango da eguerdian Udal Pilotalekuan.

Martxoaren 16an, Korrikaren aldeko eguna pasatuko da Bergararik 18:00etatik, Korrika txikia egingo dute ikastetxeetako ikasleek.

Oihulari Klownen 'Molestias clownicas' lana gaur Zabalotegin

I.A.

Gaur, barikua, Oihulari Klown taldeak *Molestias clownicas* antzezlan eskainiko du 22:30ean Zabalotegi aretoan. Medikuntza kontsulta bateko itxaron gelan izaten diren ohiko elkarriketak azalduko dituzte umore giroko antzerki obra horretan.

Virginia Imazek eta Laura Lopezek bi pailazoren paperean parodia umoretsua antzeztuko dute. Pauxa eta Endorfinia izango dira eta osasun etxeko itxaron gelan elkarren arteko lehia egingo dute, jakiteko ea bietako zein dagoen okerrago osasunez.

Ikusleak euren min kronikoen lekuko bihurtuz, umore goxoa egingez, hainbat gaixotasuni buruz jardungo dute: estresa, argaltzeko dietak, etxeoandreairen neurosia, ginekologoi nahi eta nahiez egin beharreko bisita, automedikazioa...

EMAKUMEAK ETA OSASUNA

Emakumeek osasunarekin duten harremana aterako dute azalera



OIHULARI KLOWN

Virginia Imazek eta Laura Lopezek bi pailazoren paperean jardungo dute.

bi aktore horiek. Izan ere, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an izanik, egun horren aitzakian antolatu dute ekitaldi hori.

Virginia Imazen gidoia du antzezlanak; eta aktore moduan

jarduteaz gain, zuzendari lanak ere hark egingo ditu.

Gazte eta helduendako gertatutako ikuskizuna da, eta ordu eta erdi inguruko antzezlanean gaztelaniaz jardungo dute bi aktoreek Zabalotegiko taula gainean.

LABUR

Shottaren rapa eta Within Temptationen metal gotikoa asteburuan Jam aretoan

Bi kontzertu izango dira asteburuan Jam aretoan. Gaur, egubakoitza, Sevillako Shotta rap abeslariak jardungo du hainbat laguntzaileekin. Urbano Sapiens taldea ere bertan egongo da. 22:00etatik irekiko dituzte ateak eta sarrerak aretoan 12 euroren truke egingo daitezke. Zapatuan, berriz, Within Temptation taldearen kontzertua izango da. Metal gotikoa egiten dute. 20:00etan zabalduko dituzte ateak, eta sarrerak 22 euro balio du.

Kantu afarirako txartelak salgai daude Kortazar tabernan eta Jardun elkarteak

Jardun Elkarteak kantu afaria antolatu du datorren martxoaren 18rako. Trikiti-poteoa egingo dute 20:00ak aldean eta ondoren Afariarekin elkartean izango da afaria 21:00etan. Afalostean kantu afariarekin banatuko eta trikitilarien laguntzaz bertako abestiak antzeztuko dituzte Afaritarako txartelak salgai ipini dituzte dagoeneko Kortazar tabernan eta Jardunen bulegoan. Elkarteak bazkilek 16 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 19 euro.

Jon Arretxe idazleak 'Griot' liburuaren gaineko ikus-entzunezkoa aurkeztuko du

Datorren apirilaren 7an, Jon Arretxek *Griot* liburuaren gaineko ikus-entzunezkoa aurkeztuko du, 19:00etan Kultura Etxean. Jardun elkarteak antolatu du emanaldia eta bertatik jakinarazi dute liburutegian dagoela eskuragarri liburuak. *Griot* Jon Arretxek idatzitako liburua da, eta Burkina Fason izandako gertakizunak kontatzen ditu. Aurrez irakurri eta ikuskizunaren amaitzearekin batera, idazlearekin berba egiteko aukera egongo da, baita galderak egingo teko ere, liburuaz zein bidaiaz ere.

ZAHARREN ETXETIK

Euskal Herriko erretiratuek Espainiako pentsio altuenak dituzte Lan Ministerioaren arabera

IRATI AGIRREAZALDEGI

Pentsioen gaineko datuak eman ditu argitara Lan Ministerioak. Datu hauen arabera Euskal Herriko erretiratuak dira Espainian batz besteko pentsiorik altuenak jasozten dituztenak.

Lan Ministerioaren arabera erretiratuen batz besteko pentsioa hileko 681,58 eurokoa izan da urtarrilean, iaz hilabete berean baino %6 gehiago.

Euskal Herriak du batz besteko pentsioen artean Espainiako altuena 879,65 euro, hain zuzen ere. Galiziako erretiratuek, berriz, diru gutxien jasozten dute, 553,44 euro.

Lau milioi eta erditik gora dira gaur egun pentsioa jasozten duten erretiratuak; hau da, pentsiodun guztien %60a. Izan ere, alargunak, umezurtzak eta ezinduak ere sartu behar dira pentsioak kobratzen dituztenen multzoan; guztira, zortzi milioi lagun.

Pentsio guztien batz bestekoak lehen aldiz gaintu du aurtengo urtarrilean 600 euroko


muga, zehazki 605,33 eurora iritsi da.

GALIZIAN GUTXIEN

Euskal Herriaz gain, Espainiako beste sei autonomia erkidegotan ere erretiro pentsioaren batz bestekotik gora daude; batik bat Asturias eta Madril. 850,11 euro eta 831,35 euro jasozten dituzte hilerok hurrenez hurren.

Beste muturrean daude Espainiako batz bestekoa baino gutxiago kobratzen duten pentsiodunak. Gaztela Leon (647,13 euro), Errioxa (633,93 euro), Kanariar Uharteak (662,37 euro), Andaluz (623,91 euro), Valentzia (620,30 euro), Gaztela-Mantxa (614,78 euro) eta Balear Uharteak (608,19 euro). Pentsiorik txikienak, Murtzia (604,46 euro), Extremadura (569,33 euro) eta Galiziakoek (553,44 euro) kobratzen dituzte.

Lan Ministroaren arabera, 2004an Gizarte Segurantzaren superabita "historian izan den altuena da, PIBa baino %1 baino gehiago. Pentsio sistema osasuntsu dago, eta herritarrek bermatuta dituzte euren eskubideak pentsioen arloan".



Euskal Herriko pentsiodunek batz beste 879,65 euro jasozten dituzte.

LABUR

Erretiratuek mendi irteera egingo dute martxoaren 16an

Datorren martxoaren 16rako mendi ibilaldia antolatu dute erretiratuendako. Zumarraga, Santa Barbara eta Gorlara joango dira. Ondoren, mendizaleek Gorlako Kantinan bazkalduko dute. Irteerara joan nahi dutenek San Joxepeko idazkaritzan eman behar dute izena martxoaren 14a baino lehen.

Los Arcosera joango dira San Joxepeko abesbatzakoak

Urtero egin ohi dute San Joxepeko abesbatzako kideek irteeraren bat eta aurtengoa martxoaren 14rako antolatu dute. Nafarroako Los Arcos herriera joango dira, eta herria bisitatu ostean, upategi batean bazkalduko dute. Sabela bete eta Nafarroako ardoa edan ondoren, gertu egongo dira euren kanturako dohainak erakusteko. Urtean hainbat emanaldi egiten dituzte eta horretan abilak dira.

Informatika ikastaroetan 60 lagun inguruk dihardute

I.A.

Urtero bezala informatika ikastaroak hasi dira aurten ere San Joxepe elkartearen. Urtarrilean hasi ziren eta martxora bitartean jardungo dute ikasleek hiru taldetan banatuta.

Aurtengo lehenengo hiru hilabetekoan honako ikastaroak daude aukeran: lehenengoa oinarriko informatika ikastaroa; Word programa ikasteko bigarrena; eta Interneten gainekoa bestea.

Talde bakoitzean 18-20 lagun dihardute; beraz, gutxi gorabehera 60 erretiratu joaten dira informatika eskolara.

Caixa fundazioak antolatutako eta bideratutako ikastaroak dira, eta eurak arduratzen dira irakaslea ipintzeaz.

IKASTARO GEHIAGO APIRILEAN

Ikasleei gai bakoitzaren gaineko teoria azaltzen diete liburu baten bidez, eta ondoren, ikasitakoa praktikan ipintzen dute ordenagailuaren aurrean. San Joxepeko informatika gelan bederatzi ordenagailu daude.

Ikastaro horiek amaitutakoan beste erretiratu batzuei emango diete informatika ikasteko aukera. Interesatuak idazkaritzara jo dezakete datozen ikastaroetarako izena emateko.



Erretiratuak Chillida Lekun eta sagardotegian

San Joxepe elkarteko erretiratuek egun-pasa polita egin zuten Hernani, Usurbil eta Zumaia bisitatu. Chillida Leku museoan izan ziren lehenengo, Hernanin. Ondoren, Usurbilera joan eta herrian bueltatxo eman zuten. Saizar sagardotegira joan ziren guztiak bazkaltzera gero. Bapo jan eta nahikoa sagardo edanda Bergarara itzuli ziren autobusez, baina, bidaiari aprobetxatuz, Zumaian egin zuten geldialdia, kostako herri honetako hainbat txoko ezagutzeko.

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko martxoaren 4a / 235. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Gazte mailako taldea igoera faseko lehenengo postuan dago

AINZANE IRIZAR

Benetan denboraldi bikaina egiten dihardute gazte mailako futbol taldeko mutilek. Denboraldiko lehen zatian oso ondo ibili ziren eta igoera faserako sailkatzea lortu zuten. Orain, berriz, lehenengo postuan daude, jokatutako partidu guztiak irabazita.

Urtarriletik igoera fasea jokatzen dihardu AKEko gazte mailako futbol taldeak. Iaz kopa irabazi zuten gazteek, eta aurtan, oraindik ezer aurreratzeko goiz den arren, lehenengo mailara igotzeko aukera handia dute.

Bi taldetan dihardute igoera fasea jokatzen. Euren taldean, lehenengo postuan daude antzularrak. Bosgarren jardunaldia izan zen aurreko asteburukoa, eta lau partidu jokatu dituzte; laurak irabazi dituzte. 12 puntu dituzte; 16 gol sartu dituzte eta 3 bakarrik jaso dituzte euren atean.

Beasain dago bigarren postuan, 10 punturekin, eta Gure Txokoa hirugarrenean, sei punturekin.



ARTXIBOA

Orain arte bezala jarraituz gero, lehenengo mailara igotzeko aukera du gazte mailako taldeak.

Oraindik bederatzi jardunaldi geratzen dira igoera fasea amaitzeko. Zortzi partidu jokatu behar dituzte antzularrek.

Oraingo asteburuan bigarren postuan dagoen Beasaingo taldearen aurka jokatu beharko dute, kanpoan.

Aurreko asteburuan, berriz, Oiartzunen aurkako partiduan, 6-1 irabazi zuten Antzuolako gazteek Estalan.

KULTURA

Pello Añorga ipuin kontalarariaren saioa izango dugu zapatuan, Udal Liburutegian

AINZANE IRIZAR

Udal Liburutegiak antolatuta, ipuin kontaketa saioa izango dugu bihar, zapatua, arratsaldean. Liburutegian izango da saio hori, 18:30ean. Pello Añorga oiartzuarra etorriko zaigu honako honetan.

Ipuin kontalarien artean ezagunenetakoa dugu Pello; irakaslea, idazlea eta ipuin kontalaria dugu.


IPUINAK KONTATZEA LANBIDE

Oiartzungo ikastolan irakasle zen Pello, ipuinak kontatzeko

zaletasuna piztu zitzaionean. Hogei bat urte darama Euskal Herriko txoko guztietako umei eta ez hain umei ipuinak kontatzen.

Ikastaroak ere ematen ditu, ipuinak kontatzen ikasteko; apirilean, esaterako, Bergaran bertan emango du horrelako ikastaro bat.

Hainbat liburu idatzi ditu Pello Añorgak; hala nola, *Pottokoren otsoa*, *Pottoko tripontzia* eta *Bide majikoa*. Poesia liburuak ere argitaratu dira, *Jiran-Biran* eta *Zupankapaloo*, hain zuzen ere.



OARSOALDEKO HITZA

Pello Añorga oiartzuarrek hainbat ipuin kontakuko dizkie umei zapatuan.

LABUR

Erretiratuek irteera egingo dute Markinara

Martxoaren 15ean, martitzena, Markinara irteera egingo dute erretiratuek. Bazkalosteantean joango dira. Arretsinagako San Migel, Simon Bolibar museoa eta Zenarruzako Kolejiata bisitatuko dituzte. Hilaren 11n eta 12an, 18:00etatik 19:00etara, salduko dituzte txartelak, 8 eurotan. Irteera horretan, 60 lagunendak tokia dago autobusean.

'Océanos de fuego' filma eskainiko dute gaur gauean

Gaur, egubakoitza, *Océanos de fuego* filma eskainiko dute Orlaran etxeko aretoan. 22:00etan.

Domekan, berriz, ohiko moduan, umeen txanda izango da. Oraingo astean, gauean, euskarazko filma ikusteko aukera izango dute neska mutikoek, *Yolanda eta arrosa beltzaren sekretua*, hain zuzen ere. 16:30ean izango da astero bezala.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Martxoak 5
10:00: Antzuola-Ordizia (Infantilak)
12:30: Antzuola-Elgoibar (Neskek)
16:00: Antzuola-Amaroz (Erregionalak)
Martxoak 6
12:00: Antzuola-Eibartarrak (Kadeteak)

PILOTA

Martxoak 5
18:00: Olalde-Ikaskirola (Kadeteak)
Ondoren: Olalde-Eibar (Nagusiak)

EMAITZAK

FUTBOLA

La Salle 4 Antzuola 1 (Erregionalak)
Antzuola 6 Oiartzun 1 (Gazteak)
Soraluze 3 Antzuola 6 (Kadeteak)
Arizmendi 3 Antzuola 5 (Infantilak)

PILOTA

Udaberri Saria
Olalde-Eibar (Kadeteak eskuz)... 22-9
Bergara-Olalde (Nagusiak eskuz) 22-8

ELKARRIZKETA

JOSE LUIS SANTAMARIA/MARISTA

“Barne formaziorako zentroa eta Probintziako Etxea zen Antzuolakoa”

A.I.

San Joseren irudiaren 75. urteurreneko ospakizunen barruan, Jose Luis Santamariak berbaldia egingo du egunean, hilak 10. Erakusketa 18:30ean inauguratuko dute; horren ondoren izango da berbaldia.

Zela iritsi zinen Antzuolara?

Batxilergoko ikasketak maristetan egin nituen, eta laugarren ikasturtea egitera Antzuolara joan nintzen, 1957. urtean. Salvador Irizar antzuolarra izan zen gure zuzendaria garai hartan. Ondoren, marista sartzea erabakitzeko prozesuarekin eta ikasketekin jarraitu nuen Antzuolan. Abituak ere hantxe hartu nituen. Irakasle ikasketak egin nituen gero eta formazio prozesuan zebiltzan mutilen irakasle jardun nuen Antzuolako barne formaziorako zentroan.

Eta maristak zela iritsi ziren herrira?

Lehenengo, 1903. urtean, Oñatira joan ziren, Frantziatik; eta Oñatitik, berriz, Antzuolara. Herri-tar batek eraikin bat egin zuen Antzuolan, moja batzuek; azkenean, baina, moja horiek ez ziren joan eta maristek izan zuten eraikina erosteko aukera. Horrelaxe joan ziren. Probintziako Etxea eta barne formaziorako zentroa zen Antzuolakoa. Hantxe zegoen probintziako administrazioa. Denetik zegoen etxe hartan; bitxikeria moduan, aipagarria da hantxe zegoela sotanak egiteko jostuntza.

Ze eragin izan zuten maristek herrian?

Nik uste dut eragin txikia izan genuela; guk geure bizitza egiten genuen eta ez ginen gehiegi barneratu herriko bizimoduan. Nobiziotzaz aparte, herri eskola txiki baten ardurara ere bazuten maristek eta horixe izango zen, beharbada,



KONTUOLA

herriarekin izan zuten harreman handiena.

Orain dela gutxi eraitsi zuten maristena izandako erai-

kina. Pena hartu duzu?

Bai; gauza asko bizi izan nituen hantxe eta jakin nuenean, pena hartu nuen.



Arrolakoak herria ezagutzen

Aurreko domekan Antzuolako mendiak ezagutzeko ibilaldia antolatu zuen Arrola mendizale elkarteak. Zortzi lagunek bakarrik parte hartu zuten, baina ondo baino hobeto pasatu zuten.

Aurtengo neguko protagonista, elurra, hain zuzen ere, izan zuten protagonista domekan ibilaldian ere.

Plazatik irten, eta San Blas-en gora, Irimora joan ziren lehendabizi; gero, Trekutzen behera, kalera berriro.

Ea, bada, hurrengo baten jende gehiago animatzen den, inguru ederrak ditugu-eta ikusteko!/A.I.

IRAKURLIAREN TXOKUA

MENDIZALE TASUNA ETA ARROLA

Gaur egun, esan dezakegu mendizale tasuna gorantz doala, gero eta mendizale gehiago dagoela eta honek poztu egiten gaitu. Urte luzetan hainbat mendizalek, gurasok eta mendi taldeak egin duten ahaleginari esker, gorabehera guztien gainetik eta akatsak ere egin ditugula onartuz, egindako lanak emaitza onak eman dituela esan dezakegu eta gazteengan joera eta bide batzuk jorratu direla; nahiz eta gaztetan mendira joateari utzi berriro bueltatzen ikusten ditugu.

Arrolari buruz zer esan! 33 urteko ibilbidean lankide ugari izan dituela (zoritzarrez denok ez gaude hemen, oroitzapen gazi-gozoak eta jasotako ikasgai onak besterik ez datozkigu eurengandik). Hainbat irteera eta ekintza interesgarri antolatu dituela. Gaur egun egoera kezkagarria dugu; batzordea osatzeko arazoak ditugu, gure ohitura onenetako bati (batzordekideak bi urte egoten dira) jarraitzeko denon ahalegina eta laguntza behar dugu honek duen aberastasuna mantentzeko, alde batek eramangarriagoa delako eta bestetik kide berriak ibilbide, izaera eta portaera desberdinekin taldea indarberritu egiten duelako.

Hemendik eskaera egin nahi diegu, alde batetik, nagusiei, euren esperientzia behar beharrezkoa delako; bestalde, gurasoei, euren seme alabekin edo ingurukoekin elkar lanean mendizale-tasuna bultzatzeko; eta bukatzeko, gazteei, euren proposamenak eta sasoia taldeak eskertuko duelako.

Egia esan, juntan sartzeak ardura apur bat eskatzen du baina dudarik gabe esan dezakegu esker oneko lana eta erabat aberasgarria dela.

ARROLAKO BATZARRA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua eta bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko martxoaren 4a / 218. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Kirol instalazioak berritzeko proiektua, Aste Santurako gertu

IRATI AGIRREAZALDEGI

Kirol instalazioak berritzeko premian daudela-eta, Udalean proiektua gertatzen dihardute. Hainbat lehentasun finkatu dituzte, eta proiektua Aste Santurako amaitu nahi dute. Besteak beste, pilotalekuko teilatua konpontzea da asmo nagusietako bat.

Udaleko Kirol Saitetik esan digutenez, proiektua Aste Santu aurretik amaitu nahi dute. Gero, uztailean lanak hasi eta hamar hilabeteren buruan amaitzeko.

Kirol instalazioetan gutxieneko berrikuntzak eginez lege berrietara egokitzea da euren asmoa. "Pilotalekuan egingo ditugu berritze lan garrantzitsuenak, baina gainontzeko instalazioak ahaztu gabe", esan digu Udaleko Kirol teknikariak.

TEILATU BERRIA

Horretarako, hainbat lehentasun finkatu dituzte. Teilatua aldatzea da nagusia. Leihoak eta atearak ere aldatu nahi dituzte. Gainera, Eloorrioko bidera begira dagoen horman ate handi bat egin nahi dute ibilgailuak deskargatzeko.

Argi eta iturgintza instalazioak ere berriak ipiniko dituzte, eta aztertzen dihardute pilo-



Pilotalekuan egingo dituzte berrikuntza nagusiak, baina gainontzeko kirol instalazioak ahaztu gabe.

talekuan berogailua ipini edo ez; kiroldegiko tabernan behintzat jartzea da euren asmoa.

Tabernako komunak ere egokitu egingo dituzte, eta balite-

ke pilotalekuan ere komunak ipintzea; horretarako biltoki bat egokituko dute bertan. Bestalde, pilotalekuko zorua ere berri-tu egingo dute.

Oraindik zehaztu ez badute ere, beste asmoetako bat da pilotalekuaren altuera altxatzea eta atzeko parteko harmaila batzuk kentzea.

LABUR

Jendaurrean ikusgai hautesle zerrenda

Apirilaren 17an egingo dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Bertan zein elgetarrek botoa eman dezaketek jakiteko hautesle zerrendak ipini dituzte jendaurrean udaletxeetan. Martxoaren 7tik bitartean ikusi ahal izango dira. Datuaren bat oker egonez gero, erreklamazioa egin eta aldatzeko aukera izango da. Komenigarria da lehen aldiz botoa emateko aukera dutenek edo etxebizitza aldatu dutenek arreta bereziarekin begiratzea zerrendak.

Areto futbolean izena emateko azken egunak

Martxoaren 12an hasiko da Areto Futbol Txapelketa. Bertan jokatu nahi dutenek ordea, martxoaren 9a baino lehen eman beharko dute izena. Horretarako Elgetako Kirol Zerbitzura jo behar da: 943 76 8022 telefonora deituz edo kirola@elgeta.net helbide elektronikora mezu bidez bidaliz. Talde bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko eta beste 30 euro fidantza gisa.

GARRAIOA

Autobus zerbitzua erabiltzera bultzatzeko kanpaina hasi dute

I.A.

Udaleko Ogasun, Pertsonal eta Zerbitzu batzordeak garraio publikoaren erabilera bultzatzeko kanpaina hasi du. Horretarako, herritarrei esku orriak banatu dizkiete.

Kanpainaren helburua da herritarrek autobus zerbitzuak gehiago erabiltzea. Izan ere, Udalak garraio publiko zerbitzuaren

aldeko apustua egin du "garapen iraunkorra ahalbidetzen duelako, zirkulazio arazoak eragozten dituelako eta aukera merke eta erosoa delako".

Irailean martxan jarri zutenetik urtarrilaren amaierara bitartean 1.724 bidaiarik erabili dute zerbitzua; horietatik gehienek autobus bonua dute. Kopuru hori Udalak nahiko lukeena baino txikiagoa da. Gehienbat ikas-

leek erabiltzen dute autobusa goizean eta eguerdian Bergarara eskolara joan eta bertatik bueltatzeko. Ordu horietan azaroan ibili zen bidaiari gehien, 200etik gora, hain zuzen ere.

KOSTUA

Udalarendako gastu handia da zerbitzua mantentzea. Izan ere, 23.706 euroko kostua du eta Udalak 8.092 euro ordaintzen ditu.



Pesa konpainiak betetzen du Elgetako autobus zerbitzua.

KULTURA

Fernando Saunders Lou Reed-en baxu joleak kontzertua egingo du gaur Espaloian

Gaur, barikua, Fernando Saunders baxu jolearen kontzertua izango da 22:30ean Espaloian.

Saunders oso ezaguna da musika adituendako. Baxu jole bikaina, abeslaria, konposatzailea eta produktorea da bera.

Hainbat artista ezagunekin jardun du diskoak grabatzen eta baita euren biretan ere. Besteak beste, Steve Winwood, Eric Clapton, Jimmy Page, Joan Baez, John McLaughlin, Pat Benatar eta Heart-ekin.

Lou Reed-ekin ere jo izan du baxua eta hark bere azken diskoan Saunderek konposatu eta abestutako kanta bat sartu du. Ruper Ordorikaren *Hurrengo Goizean* diskorako ere egin zuen kolaborazio bat.


POP ETA ROCKA

Txilen hasi zuen bere bakarkako ibilbidea eta ordutik hona hiru disko kaleratu ditu. Sting edo Steve Wonderren tankerako musika egiten du pop eta rocka, hain zuzen ere.

Saunderekin jardungo dute J.T. Lewis bateria joleak (Sting, Tina Turner, Livin Colors, Stanley Jordan, Lou Reed, Herbie Hancock eta Whitney Houston-ekin lan egindakoa); Loo Reed-en taldeko Mike Rathe Gitarra joleak; eta Pete Min gitarra joleak. Heart-ekin.

ERAKUSKETA

Kontzertuaz gain, bada beste kultura jardunik Espaloian. Martxoaren 10ean ipiniko ditu ikusgai Elisabet Eguren bere margolanak. Erakusketa hilaren 20ra arte egongo da.



Fernando Saunderek pop eta rock doinuak joko ditu baxuarekin.

LABUR

Erabilitako 574 olio litro jaso zituen Ecograsek

Hileko azken barikuro jasotzen dute plazan erabilitako olioak. Ecogras enpresa arduratzen da Elgetan ez ezik ibarreko gainontzeko herrietan ere lan hori egiteaz. Batetik, taberna eta jatetxeetan erabilitako olioak batzen dute, eta iazko datuen arabera Elgetan 30 litro jaso zituzten; bestetik, jendeak etxeko sukaldetan erabili eta gordetzen duen olioak ere jasotzen dute, guztira 544 litro jaso zituzten iaz. Ecogras enpresakoek jasotako olioak garbitu eta hezetasuna kentzen diote, honela, olio hori biodiesel egiteko erabiltzeko gertatuz. Hurrengo olio bilketa martxoaren 18an egingo dute 16:00etatik 20:00etara udaletxe parean. Aste Santua dela eta aurreratu egin dute eguna.

GAZTEAK

Gaztetxearen urteurrena ospatzeko ekitaldiak martxoan

Bederatzi urte beteko dira aurten gaztetxea zabaldu zutenetik. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte martxorako. Besteak beste, kontzertuak, bazkaria eta umeen eguna izango dira. Ekitaldiok asteburu honetan bertan hasiko dituzte.

Gaur, barikua, kontzertu batekin hasiko dira gaztetxearen bederatzigarren urteurreneko ekitaldiak. 22:00etan izango da kontzertua eta Tremendamente talde kataluniarrekin batera jardungo dute Desprezio, Kalaña eta Desdixie taldeek.

Martxoaren 12an ospatuko dute urteurrena bera. Egun horretarako, besteak beste, triki-poteoa, bazkaria, jolasak eta kon-



Urteurreneko bazkarirako txartelak salgai daude Haizean eta Gaztetxean.

zertua antolatzen dihardute. Bazkarirako txartelak salgai ipini dituzte Haizean eta gaztetxean 12 euroren truke.

Gazte Asanbladakoek herriko gazteak animatu nahi dituzte bileretan parte hartzera. Batzarrak barikuetan 18:30ean izaten dira.



Eskola Txikien Jairako kantua gertu

Argazkiko laukote hori arduratuko da Eskola Txikien Jaiari soinu-banda ipintzeaz. Ainhoa Agirreazaldegiaren hitzak musikatuzte Izaskun Oianguren, Gorka Arizmendiarrrieta eta Josu Azkarate elgetarrek eta Soralezuko Loiola Maderak. Bestalde, eskolako umeek errepikak kantatuko dituzte. Prestaketa lanetan dihardute bai musikariek eta baita umeek ere. Espaloian grabatuko dute abestia martxoan, Xabi Labaien teknikariarekin, eta behin nahasketak egindakoa Aste Santu inguruan eskoletan zabalduko dute./I.A.

OSMA
PIEZEN AUKERATZEA ETA EGIAZTATZEA

Salbador kalea 19 behea • 20690 ELGETA
Tel.: 943 768 127
Mobila: 677 032 739

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

TEL.: 943 76 92 71

Goibekokale

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Eskola Nazionalako neskak irakaslearekin

Eskola Nazionalan 1955. urte inguruan ateratakoa da honako argazki hau.

Maala azpiko eskaileretan, gaur egun Espaloirako sarrera dagoen lekuan ipini zen ikasle taldea dotore irakaslearekin erretratu ateratzeko.

Eskolarako mantal zuria erabiltzen zuten neskatilek, eta argazkian ere mantala soinean dutela agertzen dira. Bestalde, ez dakigu egunero horrela joaten ote ziren eskolara, baina

oinetan etxeko zapatilekin daude erretratuan.

Hainbat adinetako neskatilek gela berean ikasten zuten. Gloria zuten irakaslea, eta, esan digutenez, eskulan asko egiten zuten eskolan. Josteko lanak izaten omen ziren batez ere: farfailak, eskutrapuak, mantilak... Inoiz irakasleak euren lanak Donostiako erakusketa batera eraman zituela ere jakin dugu.

Hona hemen erretratu agertzen diren nesken izenak. Goitik, ezkerretik hasita:

Lehenengo ilaran: Maria Asun Elorriaga, Gloria Merino (irakaslea), Mari Carmen Ubera eta Mertxe Elorriaga.

Bigarren ilaran: Mari Carmen Askasibar, Maritxu Iribecamp, Rosarito Irazabal eta Pilar Bolinaga.

Hirugarren ilaran: Loren Ubera, Begoña Askasibar, Mari Tere Elkoro eta Asun Elkoro.


Laugarren ilaran: Maritxu Ubera, Maria Angeles Elkoro, Milagros Royo eta Mari Luz Bolinaga.



Argazkia: Maria Angeles Elkoro

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

OGIZUN koop. elk. okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIK FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK

EGUREN

Iraila 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).

943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

TRIPALDI Enrike Justo Garate 1. 943 76 70 76

DIETISTAK

ALBERDI Mireia Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA

Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXEIA Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

UNZUETA Irene San Martin Osasundegia. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

HOMEOPATA

GANUZA Susana San Martin Osasundegia. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irune Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52*62

OTORRINOLARINGOLOGOA

IGARTUA ALMANDOZ Julian Barrenkale 35-1 ezkerre. 943 76 70 91 630 653 202

PODOLOGOAK

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPELAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotritizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13.

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.